

FUNTZIONAMENDU ARAUAK.

1. ERABILTZAILEAK ETA SARBIDEA.

bloga mugatua izango da, aldez aurretik erregistratu diren erabiltzaileek bakarrik izango dute erabiltzeko aukera. Erregistratu ez direnak ongietorria emateko orrira bakarrik sartu ahal izango dira.

Blogean dauden informazioa eta agiriak ez dira publikoak, hori dela eta, blogaren erabiltzaileek hitza ematen dute ez dietela blogari buruzko informaziorik emango blogarekin zerikusirik ez duten pertsoneri.

2. ERREGISTROA

Blogeko kide egin nahi duenak, ongietorria emateko orrialdean sartu eta erregistro-inprimakia bete beharko du, eta bertan, izena, erakundea, helbide elektronikoa, eta beste zenbait datu adierazi beharko ditu. Ez da nahitaezkoa argazkia sartzeari, baina komenigarria izango litzateke, blogaren erabiltzaileak elkar ezagutzuz joan daitezzen.

Moderatzaileak erabiltzaile bakoitzaren erregistroa baliozkotu beharko du, eta eskatzaileari posta-elektronikoz berretsiko dio. Baliozkotzat jotzeko, arau hauek onartu beharko dira aldez aurretik.

3. BLOGAREN EDUKIA

3.1. DIREKTORIOA

Blogaren erabiltzaileen zerrenda da, ondoan beren datuak daudela.

3.2 ORRIAK

Dokumentazioa biltzeko erabiltzen diren gaiak. Bi motatakoak izan daitezke:

- Interes orokorrekoak: dokumentazio orokorra (Foru Kontratazioen Zentrala arautzeko dekretua, atxikitzeko hitzarmena), lan-egutegia, inkestak, jarraipen batzordea, eta abar.
- Kontratazio-espeditenteak: orri bat espeditente bakoitzeko, eta bertan argitaratuko da sortzen den dokumentazio guztia.

3.3 SARRERAK

Aztertu beharreko gaiak dira.

3.4 IRUZKINAK

Kideek iruzkinak egin ahal izango dituzte bai orriari bai sarrerei buruz.

4. ERABILTZAILEEK ZER EGIN DEZAKETE?

Moderatzaileak sortuko ditu orriak eta sarrerak. Kideetako batek orri edo sarrera bat sortu nahi bada moderatzaileari proposatuko dio posta elektronikoz (<mailto:infoeuskadi@gestionpublica.es>), ahal bada testua EAEko bi hizkuntza ofizialetan erantsita duela. Moderatzaileak aztertu eta egilearen izenean argitaratuko du.

Blogeko kideek iruzkinak sartu ahal izango dituzte orrietan eta sarreretan. Kide berri batek lehen iruzkina egiten duenean moderatzailearen baimena beharko du argitaratzeko, baina hurrengoak zuzenean argitaratuko dira.